

ERREPIDEAN TINKO

Indiako nekazariak protesta indartu dute azken heriotzen ondoren

 **JENDARTEA /** Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Indian ia duela urtebete-tik egiten ari diren protestetan lau nekazari hil izanak –ministro baten semea tartean zela izan zen eraso baten ondorioz– ahuldu beharrean indartu egin du nekazaritza produktuen merkaturaren liberalizatzaren aurkako mugimendua, baita Narendra Modiren gobernuaren aurkako oposizioa ere.

Zortzi pertsona hil ziren joan den urriaren 3an boterean dagoen Bharatiya Janata Party (BJP) alderdiko kideen eta nekazarien arteko liskarretan. Istiluak Lakhimpur Kheri herrian gertatu ziren, Uttar Pradesh estatuan, Indiako iparraldean. Lau nekazari ibilgailu konboi batek harrapatuta hil ziren, autoek manifestarien kontra jo zutenean.

Ondoren, manifestariak ibilgailuetan zihoazen lau pertsona –horietako hiru BJPko kideak– lintxatu egin zituzten, eta zauritu ugari izan ziren ondorengo istiluetan. Manifestarien kontra jo zuen autoetako batean Ajay Kumar Mishra Barne ministroaren semea zihoala jakin zenean, sumina areagotu egin zen Indian.

Modiren gobernuak arrakas-ta izan du unibertsitateko ikasleen eta bere autoritarismoaren kontrako eta eskubide zibilen aldeko aktibisten protestak zapaltzean, baina ez du lortu nekazariak isilaraztea.

Nekazariak ia urtebete dar-mate protestetan nekazaritza produktuen merkaturaren liberalizatzuko duten legeen aurka. Eta beste borroka horiek denborarekin ahuldu arren, nekazariak gogor dirau eta azken heriotzek indartu egin dute.

Gobernuak denborarekin nekazariak nekatzea espero zuen, baina ia urtebetez eutsi diote, bero itogarria egin zein

la urtebete borrokan daramaten Indiako nekazariak beren protesta indartu dute Uttar Pradesh estatuan ibilgailu konboi batek manifestarien kontra jo eta lau nekazari hil ondoren. Indian piztu den sumina are handiagoa izan da auto horietako batean ministro baten semea zegoela salatu zutenean.

hotz ikaragarria, errepide nagusien ondoan zeru zabaleko kanpamenduetan. Denbora horretan 600 nekazari inguru hil dira, baina azken gertaera inflexio puntua izan da.

«Lakhimpur Kheriko gertakariaren ondorioz, areagotu egin dugu gure asaldura», esan zuen Yogendra Yadav 40 nekazari sindikatuk osatu-

tako Samyukta Kisan Morcha (SKM) koalizio buruak.

SKMk urriaren 12an Shaheed Kisan Diwas (Nekazari Martiri-rien Eguna) deitu zuen eta oposizio alderdiekin batera Indiako hainbat hiritan manifestazioak antolatu zituen gertakariak salatzeke.


Hala, New Delhin, oposizio-ko Kongresuaren Alderdiaren

kideek manifestazioa Uttar Pradeshko eskualdearen bulegora eraman zuten. Haiekin All India Kisan Sabha (AIKS) nekazarien erakunde garrantzitsuetako baten kideek parte hartu zuten. Kalkutan (mendebaldea) edo Candigarhen (iparraldea) ere nekazarien erakundeek eta oposizioak manifestazioak egin zituzten.

Kongresuaren Alderdiko hainbat ordezkari saiatu ziren heriotzak gertatu ziren herria bisitatzeko, baina agintariak galarazi egin zieten. Priyanka Gandhi alderdiaren burua atxilotu zuten herrira zihoala. Atxiloketaren aurkako protestan gose grebari ekin zion. Berdin gertatu zitzaion, Akhilesh Yadav Samajwadi Party alderdiko buru eta eskualdeko gobernuburu ohia-ri.

Joan den asteartean milaka nekazariak trenbideak moztu zi-

Nekazariak hildakoen omenaldiaren hasieraren zain.
AFP



Lau nekazari ibilgailu konboi batek harrapatuta hil ziren, autoek manifestarien kontra jo zutenean. Ibilgailu batean Barne ministroaren semea zihoala salatu dute

Ondoren, manifestariak autoetan zihoazen lau pertsona –horietako hiru BJPko kideak– lintxatu zituzten. Zauritu ugari izan ziren ondorengo istiluetan, baita tiroz ere

tuzten eta 293 tren igarotzea galarazi zuten, Barne ministroaren dimisioa eta atxiloketa eta ikerketa inpartziala eskatzeko. Polizia trenbide geltokietan zabaldu zen, baina horrek ez zuen eragotzi 150 merkantzia tren geldiaraztea; horietatik 75 ikatza zentral elektrikoetara garraiatzen zuten trenak ziren.

Nekazarien sindikatuak bil-tzen dituen Samyukt Kisan Morcha (SKM) koalizioak adierazi zuenez, sei orduz iraun zuen protestan hainbat buruzagi atxilotu zituzten.

«Ekintza hau leku eta barruti ezberdinetan garatzen da. Herrialde osoko jendeak badaki non gelditu behar ditugun trenak. Indiako Gobernuak oraindik ez du gurekin hitz egin», adierazi zuen Rakesh Tikait nekazarien buruzagiak.

Tentsioa gora doala, agintariak hildakoentzako konpentsazio ekonomikoak eta gertakariak argitzeko ikerketa hitzeman dituzte, egoera lasaitzeko asmoz.

ORDAINKETAK

Horrela, Prashant Kumar Uttar Pradeshko Poliziako zuzendari nagusiak adierazi zuen Gobernuak 450.000 errupia (6.000 dolar inguru) emango dizkiela hildakoen senideei, eta zaurituek 100.000 errupia (1.300 dolar inguru) jasoko dituztela.

Kumarrek, gainera, ikerketa bat egingo dutela agindu zuen,


Rakesh Tikaitekin batera emandako prentsaurreko inprobisatu batean.

Uttar Pradeshko Gobernuak eta Gobernu zentralak –biak BJPren esku– hasieran ez zuten aintzat hartu nekazarien salaketa eta ukatu egin zuten eraso gertatu izan zenik. Hala ere, irudiak grabatuta agertu zirenean –konboiko ibilgailuak lasai doazela ikusten da, nekazariak jo, gainetik pasatu eta beren bideari jarraituz– BJP defentsan jarri zen, konpentsazio ordainketa horiek aginduz.

Baina oraindik ministroaren ardura dago argitzeke. Ajay Kumar Mishra Indiako Barne ministroak prentsaurreko batean adierazi duenez, bere semeak nekazariak harrapatu zituzten autoetako bat gidatzen zuela dioten salaketek «ez dute oinarritik».

BJP HAUTESKUNDEETAN ZIGORTZEKO HELBURUA

SKM sindikatuen koalizioak ez die utzi alderdi politikoei bere plataformarekin nahasten eta nekazarien borroka alderdien arteko gatazkatik urrundu nahi izan dute. Baina argi dute BJP Narendra Modiren alderdia zigortzeko asmoa dutela. Modu horretan, Uttar Pradeshko legebiltzarrerako datozen hauteskundeetan, lau hilabete barru, BJPren kontrako kanpaina egingo dutela iragarri dute, iaz Bengalako hauteskundeetan BJPren hautagaien kontra egin zuten moduan.



Narendra Modi lehen ministroaren estatua erraldoia. AFP

Mishrak, berriz, nekazariak BJPko hiru kide eta ibilgailu bateko gidaria lintxatu zituztela nabarmendu zuen.

«Nire semea ez zegoen bertan. Gaizkile batzuek makilaz eta ez-pataz eraso zieten BJPko langileei. Nire semea han egon izan balitz, ez zatekeen bizirik aterako», ziurtatu zuen Mishrak.

Manifestariak salatu zuten, ordea, istiluak ministroaren konboiko auto batek jendetza harrapatu ondoren gertatu zirela, Lakhimpur hirian eta Keshav Prasad Maurya ministrordearen bisitagatik antolatu zen protestan. Ibilgailuekin nekazariak harrapatu ez ezik, BJPko kideek ihes egiten saiatu zirenen kontra tiro egin zutela gaineratu zuten manifestariak.

Mishrak harrokeriaz dena ukatu eta «bi minututan» protestei amaiera emango ziela esan arren, bere egoera politikoa kolokan dago.

Indiako Kongresu Nazionalak Mishra berehala kargugabetzea eskatu du.

Era berean, BJPko kargu batzuek ere Mishraren dimisioa eskatu dute. «Hau ez da gertakari arrunta izan, hilketa baizik», esan zuen horietako batek, alderdiak kargutik kendu baino lehen.

Orain, ia urte bat errepedeetan borrokan izan ondoren, nekazariak epe luzeagorako borrokarako prestatzen ari dira eta prest daude hurrengo Indiako hauteskunde orokorretaraino luzatzeko, BJP alderdiak 2024an boterean jarraitzea galarazteko.

BJPk nekazarien protestak berehala desagertuko zirela uste zuen baina, aitzitik, indartzeaz gain, boterean jarraitzea zailduko diote, Uttar Pradeshen lau hilabete barru eta, agian baita Estatuan ere, hiru urte barru.

Astebete igaro zen ministrordearen semea, Ashish Mishra, atxilotu zuten arte, hilketa leporatuta, nekazarien eta oposizioaren presioagatik eta bakarrik eskandaluak Auzitegi Gorenaren erreakzioa ere eragin zuenean.

AUZITEGI GORENAREN PRESIOA

Auzitegi Gorenak argi utzi zuen ez zegoela «pozik» poliziaren ikerketarekin, eta galdetu zuen zergatik ez zuten Mishra gaztea lehenago atxilotu.

Berez, hasiera batean Poliziak ministroaren semea lekuko moduan deitu zuen. Ondoren, N.V. Ramanna Auzitegi Gorenako presidenteak bere haserrea erakutsi zuenean, erabaki zuten atxilotzea. Rammanak esan zuenez, hilketak ikertzeko Gobernuak «hitzak baino ez ditu eskaintzen, ekintzarik ez».

Ashish Mishra Uttar Pradesh-en atxilotu zuten «lankidetzarik ezagatik» eta «erantzun lausoak» emateagatik, ordu batzuk iraun zuen galdeketa, Upen-dra Kumar Agrawal Poliziako inspektoreordeak prentsari esan zionez.

Dagoeneko hamar pertsona atxilotu dituzte susmagarriak direlako, ministroaren semea barne. Baina Auzitegi Gorenak Uttar Pradesheko Gobernuari ikerketa arintzeko eskatu dio, ez delako fio behar bezala egingo duenik.

Joan den asteazkenean informazioa eta atxiloketen datu zehatzak eskatu zizkion. «Ikerketa ezin da amaigabeko istorio bat izan. Estatuak desagerrarazi behar du Polizia ‘oinak arrastaka’ dabilelako irudia», ohartarazi zuen Auzitegi Gorenak.

Bestalde, nekazariak harrapatu zituen konboiko BJPko kideak lintxatu zituztenak bilatzeko susmagarri batzuen argazkiak banatu ditu Poliziak. Gainera,



Kongresu Nazionalako aktibistak heriotzengatik protesta batean. Sajjad HUSSAIN | AFP

ordainsaria eskaini du susmagarrien informazioa ematen dutenentzat, kopuruak zehaztu gabe, eta salatarien nortasuna babestuko duela ziurtatu du.

Banatu dituen irudietan gizon batzuk agertzen dira, makilak eta bandera beltzak eskuetan, sutan dauden kotxe batzuetatik hurbil.

Ikerketarako dagoeneko 70 nekazari baino gehiago galdekatu dituzte, aurrez prestatutako eraso den edo kotxeek nekazariak harrapatu izanari erantzunez gertatu zen argitzeko.

Giza eskubideen aldeko erakunde batzuek argi salatu dute

Nekazariak ia urtebete daramate protestetan. Eta beste borrokak denborarekin ahuldu egin diren arren, nekazariak gogor dirau eta azken heriotzek indartu egin dute

Tentsioa gora doala, agintariak hildakoentzako konpentsazio ekonomikoak eta gertakariari buruzko ikerketa bat hitzeman dituzte, egoera lasaitzeko asmoz

argazkiak banatzeak giza eskubideak urratzen dituela eta irudietan agertzen diren gizon horien bizitza arriskuan jartzen duela.

Trilochan Singh Gandhi aktibistaren ustez, «nekazarien argazkiak publikoki partekatzeak, izenak jakin gabe edo indarkeriarekin zerikusirik ote duten ebidentziarik izan gabe, arriskuan jar ditzake. Baliteke batzuk indarkeriaren ondoren zaurituak laguntzen aritzea. Aurpegi haserreak agertzen dira, nekazari guztiak haserre zeuden, baina horrek ez du esan nahi mundu guztia kriminala denik».

«Giza eskubideen urraketa da eta salaketa jarriko dugu», adierazi zuen Gandhik.

Poliziak, berriz, «kasu normaletan jarraitzen dugun legezko prozedura da», adierazi zuen. «Ez ditu giza eskubideak urratzen eta argazkiak banatzeak ez ditu arriskuan jarri. Susmagarri batzuk identifikatu ditugu. Ezin dugu esan elementu antisozia-

lak direla, orain arte bakarrik susmagarriak direlako», gaineratu zuen.

Oraindik identifikatu ez dituen manifestarien kontrako hainbat salaketa abian jarri ditu Poliziak. Istiluak, kalteak nahita eragitea, kalteak arma arriskutsuekin nahita egitea, giza bizitza arriskuan jartzeko arduragabekeriazko ekintzak eta hilketa dira leporatu dizkieten delituak BJP alderdikideak lintxatzeagatik.

NEKAZARIAK, TINKO

BJPko eta Estatuko buruek gertatukoaren aurrean harrokeriaz erantzun duten arren, eta ministroaren semearen inpunitatea susmatzean duten arren, nekazariak aurrera egiteko duten erabakia gogortu egin da.

Gobernuaren kontrako haserrea, gainera, Punjab, Haryana eta Uttar Pradesheko nekazariengandik Estatu osora zabaldu da.

Gurvinder Singh protestan hil zen nekazari gazte bat zen. Indiako iparraldeko sikh hau gutxitan ateratzen zen bere familiako baserritik. Baina urriaren 3ko goizean nekazaritza erreformaren kontrako protestetan parte hartzera joan zen eta gauean tiro bat buruan zuela eraman zuten, hilik, etxera, familiak adierazi zuenez.

Gaztea etxetik gutxi ateratzen bazen, bere heriotzak India osoan izango du eragina, bere aitararen arabera.

Bere aita Sukhvinder Singhek «iraultza» aipatu zuen, BJPk Mishra ministroa ez bazuen kargutik kentzen eta ez baditu erreformak bertan behera uzten. «Nire semea martiri izan zen. Orain martiri izateko nire txanda da. Protestak handiagoak izango dira. Begiratu inguruan, orain edonon daude».

Iritzi publikoaren presioa go-
ra doan arren, Indiako Gober-
nuak ohiko jarrera autoritarioaz
erantzun du, amore eman gabe.
Baina kasu honetan Narendra
Modiren alderdiaren indar hori
ahultasun bihur daiteke, Indian
nekazariak duten begikotasuna-
gatik. BJPko karguak nekazarien
kontra azaldu dira, ordea, sikh
separatistak eta traidoreak dire-
la esanez.

Mishra ministroak berak gi-
zon indartsuaren ospea lan-
tzen du eta urriaren 3ko gertae-
rak baino lehen, adierazpen
gogorrak egin zituen nekaza-
rien kontra.

2000. urtean istiluak, erasoa
eta aurkari politiko bati tiro egi-
tea leporatu zioten Mishrari.

Salaketak ukatu zituen eta
aske geratu zen. 2012an diputa-
tu hautatu zuten eta joan den
uztailean Modiren gobernuan
sartu zen.

ERREFORMAK

Gainera, gertakaria Uttar Pra-
deshen izan zen: Indiako esta-
turik jendetsuena, ia 200 mi-
lioio biztanlerekin eta, beraz,
Parlamentura diputatu gehien
bidaltzen dituen. Datorren ur-
tearen hasieran estatu horre-
tan eskualdeko hauteskunde
garrantzitsuak egingo dira Mo-
diren BJPrentzat eta oposizioa-
rentzat.

Gertatutakoak indar gehiago
eman die iazko azaroan hasi zi-
ren nekazarien protestei. Haien
ustez ekoizleak babes bermerik
gabe merkatu librearen mende
uzten dituzten hiru legeren aur-
ka ari dira, eta onuradunak kor-
porazio handiak izango lirake-
ela salatzen dute.

Indiako Gobernuak, ordea, dio
nekazariak prezioak eta ekoizpe-
na zuzenean erosleekin nego-
ziazteko gaitasuna ematen saia-
tzen direla arau horiek, trabarik
eta bitartekorik gabe.

2020ko irailean onartu ziren
lege horiek nekazariak baimena
ematen diete ekoizpenak erosle-
ei zuzenean saltzeko, Estatuak
kontrolatzen dituen merkatue-
tara jo beharrean.

Merkatu horietan gutxieneko
laguntza prezio bat (PSM) ber-
matzen da, elikagai jakin ba-
tzuengatik. Hori gabe, nekaza-
riek uste dute industria handien
esku geratuko direla, inolako
babesik gabe.

Nekazaritzako elikagaien sek-
torearen pisua oso handia da,
herrialdeko 1.200 milioi biztan-
letik bi heren inguru enplega-
tzen ditu, populazioaren ia % 70
bizi dela ziurtatuz eta BPGaren
%15 inguru lagunduz.

Azaroaren amaieratik, neka-
zariak merkatua liberalizatzeari
aurre egin zioten eta New Delhi-
rako bideak oztopatu zituzten,
eta horrela, Modiren gobernuak

**«Ikerketa ezin da amaigabeko istorio bat izan.
Estatuak desagerrarazi egin behar du Polizia
‘oinak arrastaka’ dabilelako irudia», ohartarazi
zuen Auzitegi Gorenak**

**Baina orain Auzitegi Gorenak berak protestari
amaiera jar diezaioke. Nekazariak eurekin bat
egiteko deia egin dute, Auzitegiak har dezaken
erabakiaren zain**

2014an boterera iritsi zenetik
izan duen erronkarik handiene-
tako bat sortu zuten.

Auzitegi Gorenak bertan behe-
ra utzi zuen erreformak urtarri-
lean indarrean sartzea, hilabete-
tako protesten ondoren, eta
batzorde bat eratu zuen neurrien
eragina kontsultatzeko aldeekin.

Baina orain Auzitegi Gorenak
berak protestari amaiera jar die-
zaioke. Delhiren inguruetan
protesta egiten ari diren nekaza-

riek eurekin bat egiteko deia
egin dute, Auzitegiak har deza-
keen erabakiaren zain.

Manifestari gehiagok mugi-
menduarekin bat egiteko eskatu
dute, Auzitegiak protesta egite-
ko eskubidea erabatekoa den eta
nekazariak kalera irteteko esku-
bidea duten aztertuko duelako.
Gobernuak Lakhimpur Kheriko
gertaeren modukoak ez erpepi-
katzeko protesta bukatu behar
dela adierazi du.

Trenbideak gelditzeko egin
zen ekintza, Amritsarreko
geltokian.
Narinder NANDU | AFP

